

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Urbasa eta Andia larreak Nafarroako Nekazaritza ekologikoaren ekoizpen- ziurtagirian sartu dira

Guztira, 15.794 hektarea dira; horrela, Nafarroako azalera ekologikoa % 21 gehitu da

Urbasa eta Andia mendietako larreak Nafarroako nekazaritza ekologikoaren ekoizpen-ziurtagirian sartu dira, Foru Gobernuak erabilera publikoko bi mendientzat bere garaian egindako eskaeraren ondoren. Guztira, 15.794 hektarea izango dituzte abere ekologikoen bazkatzeko, ekoizpen konbentzionaleko profesionalak inolako eragozpenik izan gabe.



Osteguna, 2018.eko martxoak 8

Elizalde kontseilaria eta Edorta Lezaun.

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Isabel Elizalde kontseilariak Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko (NNPEK) lehendakari Edorta Lezaunen eskutik jaso du Departamentuarentzako operadore ekologikoaren ziurtagiria, bi mendietako 15.794 hektarea babesten dituena. Modu horretan, Foru Komunitateko hektarea ekologikoak %21 gehitu dira; beraz, jada 72.962 hektarea ekologiko daude ziurtatuta.

Herri-larre horien ziurtagiriari esker, animaliek larre horietan bazkatzeko ganaduzale ekologikoen egin beharreko izapide burokratikoak sinplifikatzen dira, horrek inolako mugarik ezarri gabe ekoizpen konbentzionaleko profesionalak.

Ekoizpen ziurtatuetan larreen aprobetxamendu ezberdinak sartzen dira abelburu bakoitzeko, batez ere, ardiak, behiak eta zaldiak. Era horretan, ziurtagiriaren arabera, aprobetxamendu horien kudeaketak produkzio ekologikoaren erregelamendua betetzen duela bermatzen du (Europako 834/07 eta 889/08 erregelamenduetan jasoak); hain zuzen ere, nekazaritzako kudeaketaren eta elikagaien ekoizpenaren sistema orokorra definitzen eta deskribatzen da bertan, ingurumen-arloko jardunbide egokiak, biodibertsitate-maila altua eta baliabide naturalen babesa konbinatuaz. Kontsumitzaile jakin batzuen lehentasunen arabera eska daitezkeen arauak aplikatzen dira, substantzia eta prozesu naturalen bitartez lortutako produktuei dagokienean.

390 ustiategiko ardiak, behiak eta behorrak

Urbasa eta Andia mendietako 15.637 hektareatan batik bat pagadiak eta bazkalekuak daude, interes komunitarioko habitat bezala katalogatuak, eta Nafarroako NATURA 2000 SAREAN sartuak. Belar-larreak kalitate nutritibo eta balio ekologiko handikoak dira, eta honako hauek osatzen dituzte gehienbat: larre mesofitikoak (*Festuca rubra* eta *Agrostis capillaris*) , larre mesoxerofiloak (*Festuca rubra* eta *Festuca ovina* gr) edota larre xerofiloak (*Festuca ovina* gr). Zuhaitzen artean hauek dira nagusi: bojeralak, elordiak, ipurudiak eta txilardiak, eta, gutxixeago bada ere, badira zona antzuak edo harkaitz askokoak.

Mendi horietan larrean ibiltzen den abere-kopurua aldatzen da urte batetik bestera, baina gutxi gorabehera 27.000 ardi -Nafarroako 17.000 latxa eta 10.000 rasa-, 4.300 behi eta 3.300 behor larratzen dira; hots, 12.000 bat AzLU (azienda larri unitate). Nafarroako 390 azienda-ustiategikoak dira.

Urbasan eta Andian apirilaren 15etik abenduaren 15era bitarte eduki daiteke azienda, bertako ustiapen gutxi batzuek kenduta, mendian urte osoan egoteko aukera baitute. Hala ere, azienda gehiena denbora gutxiagoan egoten da bertan, normalean 4 hilabetetik 6 hilabetera.